

## Bost gotzain Erroman

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-09-30: 3.

Ez dira Euskal Herriko guztiak, ezta denak euskaldunak ere, baina Euskal Herriaren izenean joan dira Erromara gure herriaren zati batentzat batasun eske. Pobreak bezala, beti zatituta eta beti eskean. Ez eskeko garelako, bada txiroagorik munduan, ezta indarge geratu garelako ere. Baina falta zaigu zerbait osoago jokatzeko. Libertatea! Ez Kalbinorik baina bai Askatasuna, hau argi dago!, eta hala ere, libre garen alorretan, etxeko pasadizoetan, zer gertatzen zaigu euskaldunoi... Igandean jarri nintzen Euskal Telebistako leihoan albistegia ikus-entzun eta gero bertsoak entzuteko *Hitzetik Hortzera* saioaren bigarren emanaldian. Dena prest zegoen Alkizan bertsolariak entzuteko. Ni ez naiz bertsolari baina familian ezagutu ditudan hiru belaunaldiak izan dira entzule ea zale, eta hor jarri nintzen esperoan. Ez dakit noren errua izan zitekeen, errudunik bada, potoaren tristura giro hura, baina falta zena ez zen bertsolaria, han agertu zirenak froga franko emanak dira; ezta entzulea ere, adi eta paziente, txaloarekin prest, baina hala ere bertso jaiaren izpiritua lozorroan bailegoen sentitu nuen. Denbora joan eta beste onik ez zen pasa diosalako agurra bota zen arte.

Gero, arratsaldearen zati bat galdu eta gero Santurtzira egin nuen jauzia, eta arraunlariak han zeuden prest, baina hemen ere agertu zen galerna baten izpiritu gaiztoa, sargori, haizetsu eta busti... hitzak asko baina zentzua osorik galdua balute bezala boteak. Babel marinel bat! Inork ez zuen ezer ulertzen, aidanez. Aginduak eman behar zituen mututu balitz bezala, eta estropadarik ez!... Hau dena telebistako leihoaren aurrean gertatu zen. Orain hogeitun urte hau Alkizan edo Santurtzin pasatua balitz, gauza xumea izango zen, baina ikustaria zabaldu egin zen mundura!

Hemen ezin botako diogu errua Madrili, ezta Erromari ere; apezpikuei ere ez, esaneko baitira legez. Agian errua, elizako zati xume sentitzen garenok dugu, beti ixilik eta obediente!